



**ESKOLA-KIROLAREN
EREDU BERRIA LANTZEN**
ORIO · 2024-2025



SARRERA

Orioko eskola-kirola ikastetxeek kudeatu dute orain arte. Hasiera batean, ikastetxe bakoitzak bere aldetik; azken urteotan, Ikastola eta Zaragueta koordinatu izan dira, Urola Kostako eskola-kiroleko mahaiarekin elkarlanean.

Udalak herriko kirol-diagnosia egin berri du eta bertan garbi geratu dira **eskola-kirolak Orion dituen gabeziak: begiraleen prestakuntza-maila eskasa, egitura ahula, finantzaketa urria...** Horrek guztiak Udala interpelatzen du, azken batean berea baita Kirol Legeak jasotzen duen ardura hau: «lurralde historikoetako foru-organoek onartzen dituzten eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko programak gauzatzea, foru-organoekin koordinatuta eta tokiko ezaugarrietara egokituta, udal-eremuko heziketa-zentroekin eta kirol-eragileekin lankidetzan» (2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa. 5. artikulua).

Eskola-kirolean Orion orain arte egin den bideari balioa aitortuta —besteak beste, parte-hartze maila oso handia lortu duelako eta kirol-eskaintza handia dagoelako—, bi ikastetxeek askotan adierazi dute gogoeta egin beharra dagoela herriko eskola-kirol-ereduari buruz, eredia egokitzeko gaur egungo gizartearen nahi eta premietara.

Txosten honetan, zentzu zabalenean hartzen dugu «kirol» hitza, era askotako jarduera fisikoak barnean hartzen dituela, baita araututa ez daudenak ere.



GOGOETA-SAIOAK

Behar horri erantzuteko, Orioko Udalak antolatuta eta OinHerri Herri Hezitzaileak elkarteak dinamizatuta, **gogoeta-saio irekiak** egin dira **2024ko maiatzean eta ekainean**. Hiru bilera izan dira, bina ordukoak, eta Salatxo aretoan egin dira.

Guztira, 14 pertsonak parte hartu dute prozesuan: bi ikastetxeetako koordinatzaileak, gurasoak, Udaleko hezkuntza- eta kirol-technikariak, zinegotziak eta kirol-elkarte batzuk. Oso saio emankorrak izan dira, parte-hartzaileen ustez.

Gogoeta kolektibo horretan Orioko eskola-kirolaren gaur egungo panorama aztertu dute: non gauden, zer nahi dugun eta zer bide hartu behar genukeen etorkizunean:

- **Lehen saioan**, gaur egun martxan dagoen eskola-kirolaren indarguneak eta ahulguneak identifikatu dira.
- **Bigarren saioan**, Orioko eskola-kirola nolakoa izatea nahiko genukeen planteatu da, iparra irudikatu eta zein balio sustatu behar diren identifikatuz.
- **Hirugarren saioan**, datorren ikasturterako egitasmoa zehaztu da eta funtzionamendu-eredu bat planteatu da: eragileen artean plangintza bateratua lantzea eta Orioko eskola-kirola koordinatzeko gunea sortzea.



GAURKO EGOERA

INDARGUNEAK

- Azken urteetan gertatzen ari den eraldaketa.
- Herriko bi ikastetxetako kirol-koordinatzaileen arteko koordinazioa dago.
- Eskualde mailako koordinazio-gune bat dago.
- Taldeak malgutasunez aldatzen dira: mistoak/ez mistoak, kirolaren arabera, adinaren arabera...
- Kirol-elkarte gehienen prestutasuna eskola-kirolean parte hartzeko.
- Kirol-elkarteez gain, herrian badaude beste aukera batzuk, jarduera fisikoa beste modu batera sustatzen dutenak; Harribil dantza-taldea, esaterako.

AHULGUNEAK

- Kirol hegemonikoen eta ezezagunagoen arteko oreka bilatzea multikirol programan.
- Koordinazio-gune bat falta da herrian, kirol-elkarteen eta eskola-kirolaren arteko elkarlana bideratzeko.
- 12-16 urte bitarteko herriko nerabeentzako kirol-eskaintza kirol-klubetara mugatzen da.
- Egoera zaugarrienean dauden haurrek ez dute izaten aukerarik besteen pare parte hartzeko kirol-elkarteetan.
- Bi ikastetxeen eskola-kiroleko programan ezberdintasun txiki batzuk daude.
- Udalaren orain arteko inplikazio baxua.



MISIOA

Egindako lanketaren ondoren, saioetako parte-hartzaileek ondorioztatu dute **eskola-kirolaren inguruan modu koordinatuan jardun behar dugula** eta, horretarako, **talde motor bat eratu behar dela**, gutxienez ikastetxeetako kirol-arduradunetz eta udaleko ordezkarietz osatua. Talde motor horrekin batera, bigarren geruza batean, elkarlana bultzatuko da beste eragile batzuekin, batez ere kirol-elkarteak, aisialdi-taldeak eta familiak.

Talde motorraren eraketa **misio nagusi honekin** lotuta dator: **2025-2026 ikasturtean eskola-kirol eredu berri bat abiatzea Orion.**

Misio nagusi horri begira, eginkizun hauek izango ditu talde motorrak, 2024-25 ikasturtean:

- Kirol-programa bateratu bat diseinatzea Orioko haur guztientzat, gaur egungo eskola-kirolak eta kirol-eskolak modu koordinatuan bilduko dituenak.
- Begiraleentzako lan-baldintza duinak bermatuko dituen egitasmoa proposatzea, horien formazioa, kontratazioa eta koordinazioa nolakoa behar duen jasoko duena.
- Prozesuan eta programan herriko beste eragileak inplikatzea: Saregile, Txurumuski, Harribil dantza-taldea...
- Eskola-kiroleko eredu ezberdinak ezagutu eta aztertzea.
- Informazioa biltzea galdetegien bidez (gurasoei eta haurrei).
- Eskola-kirol eredu berriaren aurreikuspen ekonomikoa egitea.



EZAUGARRIAK

Eskola-kirol eredu berriak ezaugarri hauek izan behar lituzke:

- **LH1 eta DBH4 arteko ikasmilak** kontuan hartuko ditu.
- Bi ikastetxeetako ikasleak eskola-kiroleko **programa edo egutegi bakarrean** integratuko ditu, adina kontuan hartuz.
- Ahalik eta Orioko **kirol-elkarte gehienekin elkarlanean** antolatuko da.
- **Lan-baldintza onak** dituzten hezitzaile formatuek emango dute.
- Asteburuetakako jarduerak aztertuko dira.
- Orion, tarteka, **topaketak** antolatuko ditu, Orioko haurrekin bakarrik.
- **Sormena landuko du**: mugimendua, jolas librea, saio askeak...
- Adinaren arabera aztertuko du eskaintza.
- **Inklusiboa** izango da. Adin eta ezaugarri guztietako ikasleek izan behar dute aukera eskola-kirolean parte hartzeko, berdintasunean.
- **Parte-hartzailea**. Gaur egungo parte-hartzaile kopuruei eutsi edo gaindituko dituen eredu erakargarri bat izango da. Bertako parte-hartzaileek kirol-ohitura osasuntsuak barneratzea helburuetako bat izango da, egunerokoan aktiboagoak izan daitezen, euren ongizate fisikoa eta mentala erdiesteko. Horretarako, ezinbestekoa izango da eredu hori erakargarria izatea.
- **Hezkidetzan oinarritua**. Eskola-kiroleko programak haurren oinarritzko gaitasun fisikoen garapena bultzako du, norberak osasuna zaintzeko eta hobetzeko helburuarekin, baina hori lortzeko ezinbestekoa izango da hezkidetzaren balioak kontuan hartzea, kirola hezkidetzaren balioak sustatzeko tresna izanez. Kirolean maiz gertatzen den genero-arrakala txikitzea helburu garrantzitsua izango da.
- **Eskuragarria** izango da parte hartu nahi duten pertsona guztientzat, eskola-kirol programak bultzatuko dituen balioetan Orioko haur eta nerabe guztiak hezi daitezen.
- **Malgua**, parte-hartzaileen beharrei modu egokiagoan erantzun ahal izateko.
- **Anitza** izango da eta askotariko jarduerak uztartuko ditu, parte-hartzaileek oinarritzko trebezia fisikoak garatzeko eta hobetzeko. Trebezia espezifiko batzuk garatzeko aukera ere izango dute haurrek eta nerabeek, bakoitzaren gaitasunen eta hautuen arabera; horrek hastapen



gisa balioko die kirolean eta, ahal den neurrian, aukera emango die herriko kirol-elkarteetan jarraitu ahal izateko beren kirol-ibilbidea.

- **Ingurune naturalekin konektatua** izatea bultzatuko da, naturak Orion eskaintzen dizkigun aukerez baliatuta.
- **Herriko kultura, kirol-ondarea, herri-izaera eta hizkuntza** kontuan hartuko ditu.



ERRONKAK

Eskola-kirol-eredu berria lantzeko ibilbide horretan, hauek dira aurreikusten diren erronkak, besteak beste:

- **Ordutegien eta baliabideen planifikazioa:** bi ikastetxeak, kirol-elkarteak, herriko beste jarduerak (musika, akademiak...).
- Kirol-elkarteak programa bateratuaren eredura erakarri.
- **Hezitzaileen formakuntza** bermatzeko pausuak ematen hastea.
- Parte-hartzaile guztien nahiak aseko dituen eredu bat garatzea, inor kanpoan utzi gabe eta inor ezertara behartu gabe.
- **Finantzaketa:** batez ere hezitzaileena (2026tik aurrera tituludunak izan behar dute).
- **Komunikazioa:** urtebeteko lanketa egingo dugunez, herritarrei eraldaketa-prozesu honen berri egoki emateko modua aurkitu beharko dugu: albisteak, kontraste-saioak, beste herrietako ereduak ezagutarazteko saioak antolatuz...
- **Ebaluazio-sistema** bat sortu, familien, hezitzaileen eta haurren gogobetetasuna-maila neurtuko duena.
- **Euskararen erabilera** erraztuko eta sustatuko duen testuingurua eraikitzea.